

ataria

ASTEARTEA

2024/05/14
12. urtea, 1.972. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 95€

Frontoia, parkea eta ingurua egokitu dute

Orendainen larunbatean egingo dute azpiegitura berriak irekitzeko ekitaldia; herri afaria egingo dute ospatzeko //3



Material «naturalak» erabili dituzte eremua berritzeko. AITOR ARROYO

Ligako finala jokatu du TAKEk

Senior emakumezkoen 1. mailako Eguzkitza Sagardotegia TAKE saskibaloitza taldeak, finalerdiak gaitu ostean, CD Internacional taldearen aurka jokatu du larunbatean //6



Igandean Altxoko erroten eginiko bisita gidatuan parte hartu zuten hainbat herritar. L. CARRASCO

Errotak barrutik ezagutu dituzte

Erroten Egunaren harira, hainbat errota ezagutzeko aukera izan dute herritarrek; Altxon —irudian—, San Salvador Bekoa errota martxan ikusi dute bisita gidatuan parte hartu dutenek //5



LOATZO
MUSIKA ESKOLA

BIZI, ENTZUN, SENTITU
MUSIKA
mugarik gabe

2024-2025 ikasturtea
MATRIKULAZIOA
Maiatzaren 20tik 31ra

Matrikulazioa online:
www.loatzo.eus
loatzo@loatzo.eus
Argibideak:
943-692 619

IRURA • IBARRA • VILLABONA
ZIZURKIL • ADUNA • ALTZO
ALEGIA • ANOETA



LEIZARAN
INSTITUTUA

Izen ematea:
Maiatzaren
6tik 24ra
biak barne

• **Gizarteratzea. Goi Mailako Heziketa Zikloa.**
• **Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta. Erdi Mailako Heziketa Zikloa.**
Langabeentzat eta langileentzat profesionaltasun ziurtagiriak
Doako ikastaroak

 Informazioa: 943 89 92 59 • www.leizaran.eus • gizarteratzeazikloa@leizaran.net
Plazaola kalea, 23. • 20140 ANDOAIN

Beñat Iguaran eta Izarne Zelaia sailkatu dira bigarren itzulira

Guztira 23 bertsolari pasa dira A multzotik hurrengo fasera, tartean Amasako eta Zizurkilgo parte hartzaileak; ostiralean jakingo da B multzotik zeintzuk sailkatzen diren

Erredakzioa

Hiru saio jokatu dituzte asteburuan Gipuzkoa Bertsotan eta hiru etan aritu dira eskualdeko bertsolariak; Anoetako Txomin Azpiroz aritu zen Getarian, Jon Luzuriaga ikaztegiatarra Anoetan bertan aritu zen, eta Mutrikuko saioan Iñigo Gorostarzu *Etxorde* berastegiarrak, Zizurkilgo Izarne Zelaia eta Irurako Jon Mendiluzek kantatu zuten.

Getarian B multzoko saioa jokatu zen. Odei Lopez Larraurik irabazi zuen saioa 307 punturekin, eta eskualdeko ordezkariak, Txomin Azpiroz de Pedrok, bosgarren egin zuen 274,5 puntu eskuratuta.

Mutrikuko A multzoko lehen itzuliko azkena izan zen eta beraz, multzo horretatik bigarren itzulira sailkatu diren 23 bertsolarien izenak ezagutu ziren; bertan dira eskualdeko Beñat Iguaran Amondarain eta Izarne Zelaia Arratibel. Saioari dagokionez, Manex Astigarraga Bergarak irabazi zuen (321,5 puntu). Sailkapenari dagokionez, Izarne Zelaia Arratibelek bigarren egin zuen (302,5 puntu), Iñigo Gorostarzu Etxebeste *Etxordek* hirugarren egin zuen (300 puntu) eta Jon Mendiluze Mujikak seigarren (275 puntu).

Anoetan B multzoko saioa izan zen eta Beñat Jauregi Etxeberria nagusitu zen 311 punturekin. Bertsolari bat gutxiagorekin jokatu zen saioa, Kepa Isasik ezin izan baitzuen parte hartu. Jon Luzuriaga Iurramendik laugarren egin zuen (288 puntu). B multzotik sailkatzen diren bertsolariak, eta behin betiko zerrenda maiatzaren 17an osatuko dute, Oñatiko saioa bukatzean.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeko lanak. Emakume bat behar da lurraren etxeko lanak eta bazkaria egiteko, goizetan ordu eta erdiz asteartetik ostiralera. 625 705 062 telefono zenbakira deitu behar da.



Jon Luzuriaga Anoetako saioan; Iñigo Gorostarzu Mutrikun; eta Txomin Azpiroz Getariako saioan. GIPUZKOA BERTSOTAN



Bigarren geldialdia eskualdean



Kronika
Beñat Azaldegi Lakuntza
Harituz bertsotale taldea

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen faseak Anoetan egin zuen geldialdia ostiral arratsaldean. Goraino betetako Mikelasagasti aretoaren laguntzaz saio ederra osatu zuten oholtzara igotako sei bertsolariak.

Zarauzko Motxian bertso-esko-

lako Beñat Jauregi irabazi zuen saioa. Goitik beherako saioa osatu zuen, eta erregulartasunak eman zion saria zarauztarrari. Ofizioetan serio eta erantzunetan arin, bakarkako lan on batekin jarri zion ginga saioari. Mikelasagasti ondo datorkiola dirudi, orain bost urteko txapelketan ere berak irabazi baitzuen bertan jokatutako saioa.

Bigarren German Urteaga beasaindarrak egin zuen. Saioa motel antzera hasi arren, saioaren bigarren zatian nabarmen gora egin da lortu zuen bigarren postua. Nabarmentzekoak izan ziren ganbarako ariketan eman zituen puntu erantzunak eta bakarkako gaiari kantatutako bi bertsoak.

Erniarratitz bertso-eskolako Julene Iturbek egin zuen hirugarren. Saio ona osatu zuen. Ofizioetan txukun, ganbarako bi arikete-

tan izandako beherakadatxoak eragotzi zion lehen postuetan egotea.

Gure eskualdekoea den Jon Luzuriagak bete zuen laugarren postua. Bertso-istorio kuriosoa du ikaztegiatarra. Lan kontuengatik Hendaiara bizitzera joanda, orain dela bizpahiru urte hasi zen bertsotan ikasten Irungo Irunabar bertso-eskolan. Eta nola ikasi duen! Saioko sorpresa positiboenetako bat izan zen. 8ko handian egindako poto batek eragotzikio dio, ia ziur, bigarren fasera igarotzea. Pena. Bera gehiago entzuteko gogoz geratu baikin ostiralean.

Markel Eizaguirre izan zen bosgarren sailkatua. Saio gorabeheratsua egin zuen Getariarrak, eta ateraldiren bat kenduta, ezin izan zuen bertsotarako duen maila erakutsi.

Ez zen seigarren sailkatu izan ostiraleko saioan. Kepa Isasiren parte hartzeko ezintasuna tarteko, Amaia Agirre aritu zen kantatzen, modu ez puntuagarrian ofizioetako saioak egiten laguntzen. Lagundu soilik ez, kolorea eta txispa gehitu zion bertsolari billabonatarra saioari. Plazera da horrelako eskarmentua duen bertsolaria bertsolari gazteagoekin oholtza partekatzen ikustea.

Saioa borobiltzeko, Harituztarrak prestatutako afari-meriendaz gozatzeko aukera izan genuen. Zoragarri. Ezin zaio ostiral arratsalde bati gehiago eskatu.

Gipuzkoa Bertsotan lehen fasea ostiral honetan amaituko da Oñatin. Orduan jakingo ditugu lehen fasea jokatu duten 74 bertsolarietatik zein 48 bertsolarik izango duten bigarren fasea jokatzeke aukera.

Eremu eta parke eraberrituak estreinatuko dituzte larunbatean

Iazko irailetik hona egin dituzte frontoia eta parkea berritzeko lanak Orendainen; larunbat honetan zabalduko dute eremu berritua eta herri afaria egingo dute ospatzeko

Aitor Arroyo Askarai

Larunbatean zabalduko dituzte Orendainen parke eta eremu berrituak. Irekitzeko ekitaldian aurreskua dantzatuko dute herriko zenbait haurrek; hitz batzuk esango dituzte udaleko ordezkariak eta, jarraian, zinta moztu eta parkeari emango diote «protagonismo» guztia. Aipatutako jardueraz gain, merienda jarriko dute umeentzat eta afaldu ere bertan egingo dute. Janaria norberak eramane beharko du, eta Orendaingo Udala arduratuko da edariaz.

Joan den urteko irailean hasi zituzten frontoia, parkea eta ingurua eraberritzeko lanak. Jone Tolosa zinegotziak nabarmendu du ez dutela «soilik umeentzat» egokitu espazioa: «Haurrak, helduak, gazteak, adinekoak... Denek euren lekua izango zuten leku bat egokitu nahi izan dugu».

EREMUAREN BERRIKUNTZAK

Ez frontoia eta parkea bakarrik, ingurua ere egokitu dute. Izan ere, begiratokia osatzeko baliatu dituzte lanak eta bi mahai, belarrezko gunek eta bankuak ere jarri dituzte.

Aipatutakoaz gain, «jolas eremu naturala» ere eraiki dute eta, besteak beste, salto egiteko gunek bat, txirrista bat eta eskalatzeko zenbait eremu jarri dituzte. Tolosak azaldu du «material naturalak» erabiltzeari eman dietela garrantzia: «Egurra, harria, belarra... Material naturalak izan

behar zuten. Paisaia integratzeko beharrezkoak dira eta umeentzat ere oso atseginak dira». Horrez gain, herrian «ohiko» beste parke bat ere badela ekarri du gogora.

Orain arteko frontoia, berriz, ez da gehiago «erabat» pilotalekua izango. Txapa utzi dute frontisean, baina gainerako ezaugarriak kendu dituzte. Herrian badute beste pilotaleku bat ere eta, hori kontuan hartuta, «beste nolabait» erabili nahi dute espazioa. Tolosak azaldu du herritarrei proposamenak egiteko aukera zabalduko dietela, eta «aurrerago» hornituko dutela «bestelako materialez».

LANEN NONDIK NORAKOAK

Frontoia, parkea eta ingurua berritzeko lanek, guztira, 100.000 euroko kostua izan dute eta hori finantzatzeko 40.000 euroko diru laguntza jaso du Orendaingo Udalak. Parkea berritzeaz Kimubat enpresa arduratu da, eta Zubi enpresak egin ditu frontoia egokitzeko lanak.

Parkea berritzeko ideia 2022ko herri batzarrean aurkeztu zuten udalak orendaindarrei. Herritarrek proposatu zuten gunea ez izatea «haurrei zuzendutako» parke bat bakarrik, eta horrela erabaki zuten «atsedenerako zein modu askotan erabiltzeko» gunea egitea. Tolosa zinegotziak aipatu du herritarrek «ilusioz» hartu dutela parke berria, eta «balio erantsi moduko bat» ematen diola herriari.



Parkea berritzeko «material naturalak» aukeratu dituzte, besteak beste, harria, egurra eta belarra. A. ARROYO



Begiratokian, oro har, belarra mantentzea erabaki dute eta bi mahai eta bankuak jarri dituzte. A. ARROYO



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek, bi mila eta hogeita lauko apirilaren hogeita hamarrean, besteak beste, ondoren aipatzen den erabakia hartu zuen:

HASIERAKO ONESPENA EMATEA Tolosako Udalean, 2024ko apirilaren 23an (2024-5524 erregistro zk.), JAIZUBIA BARRI SL enpresak, O.M.U.G.k ordezkaturak, aurkeztutako 13 Laskoain esparruko 13.1 San Frantzisko pasealekua 37 azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldagaitza proiektuari.

Espedientea jendaurrean egongo da, HOGEl egunez, alegazioak egin ahal izateko, azken argitaratzea egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2024ko maiatzaren 13an, 91. alean.

Tolosa, 2024ko maiatzaren 13a—Kristina Pelaez Errazkin, zinegotzi delegatua

Errotak bertatik bertara ikusteko aukera

Gipuzkoako Erroten Egunaren harira, erroten historia ezagutu eta martxan ikusteko bisita gidatuak egin dituzte



Altzoko errotara herenegun goizean egin zuten bisita gidatua, eta jende ugari parte hartu zuen. L. CARRASCO

Leyre Carrasco

Gipuzkoako Erroten Eguna ospatu zuten igandean hainbat herritan, tartean eskualdean. Errotak ondare historiko, teknologiko, antropologiko eta etnografikoaren zati dira, eta mendeetan zehar garrantzi handia izan dute Gipuzkoako garapen sozial, ekonomiko eta industrialean. Hain zuzen, errotei balioa emateko antolatzen da eguna, eta aurten hirugarrenez egin dute. Tolosaldean, Altzoko, Amezketako eta Larraulgo errotetara bisita gidatuak egiteko aukera izan zen herenegun.

Altzoren kasuan, Altzo Azpin kokatuta dagoen San Salvador Bekoa errota egin zituzten bisita gidatuak, eta Antton Iztueta

herritarra arduratu zen horiek gidatzeaz. Errotaren historia entzuteaz gain, martxan ikusteko aukera ere izan zuten. Horrez gain, minak eragindako kalteak berreskuratzeko lanak ere ikusi zituzten, eta ondoren, hamaiketako egin zuten elizako aterpean.

Iztuetak kontatu zuenez, herri askotan jauntxoan menpeko izaten ziren errotak, eta horrela izan zen Altzoren kasuan ere. Hala, Altzo Azpin Olazabalдарrei lotuak agertzen dira bertako errotak. Izan ere, San Salvador Bekoa errota ez ezik, Altzon, bazegoen Konderrota izeneko bigarren errota bat.

XV. mendetik aurrera errota egokia edukitzea izan zen altzotarren kezka nagusienetakoa. Iztuetak esan zuen dokumentu za-

harretan ikus daitekeela hitzarmen eta aldarrikapen ugari izan zirela mendeetan zehar Olazabal Etxea eta altzotarren artean.

Bi errotarri dituen errota da San Salvador Bekoa edo Errotatxiki. 1967an utzi zion labore-aleak ehotzeari. Ia 40 urtez geldu egon ostean, Altzoko Udalak erosi zuen 2005eko otsailean eta zaharbertzeari ekin zion. Geroztik, noizean behin gainarria pikatu egin behar izaten dute, eta horretarako, *peskantea* deritzen tramankulua erabiltzen da errota gehienetan. Altzon, ordea, sabaiak aurkitzen den zurezko dornu birakari batez altxatzen dute gainarria. Eta hori dela, hain zuzen, San Salvador Bekoa erroren berezitasuna azaldu zuen Iztuetak bisita gidatuan.



Larunbatean, Triangulua plazan eginiko mobilizazioa. J. ARTUTXA

Herritarrek su-etena adostea exijitu dute

Gernika-Palestina Tolosako taldeak deituta, mobilizazioa egin dute Palestinako genozidioa salatzeko

Josu Artutxa Tolosa

Gernika-Palestina herri ekimeneko Tolosako taldeak bat egin du palestinar herriaren alde mundu mailan ematen ari diren mobilizazioekin, eta larunbatean, dozenaka herritar bildu ziren Triangulua plazan egin zuten elkarretaratzean.

Israel eta Gazaren arteko gatazka «aspalditik» datorrela gogoratu zuen Aritz Lopez Gernika-Palestina herri ekimeneko Tolosako taldeko kideak. «Azken urteetan gerra pizten eta itzaltzen aritu dira etengabe, baina egia da aspalditik ez zitzaiola ematen azken hilabeteetan eman zaion dimentsio berdina».

Israelek Gazan dagoeneko 35.000 palestinar baino gehiago hil dituela nabarmendu zuen. «Israelek Gazari ezarri dion blokearen ondorioz, gosetea hedatzen ari da, milaka bizitza arriskuan jarritz. Rafah-ren aurkako erasoarekin, Gazak Egiptorekin zuen muga hartu du Israelek, Gazako herritarrak erabat isolatuz eta blokeo egoera areagotuz».

Palestinak bizi duen une zail honetan, genozidioarekin amaitzeko esfortzuak biderkatzeko beharra azpimarratu zuen Lopezek. «Israeli eta Palestinari dagozkien NBERen ebazpenak zorrotz betetzeko eskatzen dugu, baita nazioarteko komunitateak Palestinako Estatua onartzeko ere. Bestetik, Espainiako Gober-

nuari eta gainerako erakundeei exijitzen diegu Israelekiko armamerkataritza eten dezatela eta neurriak har ditzatela».

Gauzak horrela, egoerari berehalako konponbidea emateko, su-etena adostu dezatela exijitu zuen: «NBEk egindako adierazpenetan azaltzen den bezala, Palestinako estatua errekonozitua izatea eta egoerari soluzio politikoak aurkitzea nahi dugu».

Mundu mailako protesta dela nabarmendu zuen Lopezek, eta bai Tolosaldean, baita Euskal Herrian ere, herritarrak babes «handia» ematen ari direla aitortu zuen. «Munduko toki askotatik jarraitu dituzte Gernika-Palestina herri ekimenak antolatutako mobilizazioak eta eredugarritzat jo dituzte».



Herritar bat, mobilizazioan. J. ARTUTXA



BIGARREN ESKUKOAK

Bigarren eskuko bizikleten elkartruckerako azoka egin zuten Alondegi plazan larunbatean, Zumardia elkarteak sustatuta. Bizikleta, patin, patinete, kasko eta bestelako bigarren eskuko materialak trukatu, saldu edo erosi ahal izan ziren, jasangarritasuna, elkartrukea eta berrerabilpena bultzatuz. J.A.



BIGARRENEZ, FESTA

Iazko arrakasta ikusita aurten ere gazte sentitzen direnen eguna antolatu dute Bidania-Goiatzen. Udaletxetik jaurti zuten txupinazoarekin abiatu zuten eguna larunbatean, eta gauera bitarte hamaika ekitaldi izan zituzten, «festarako gogoa» zuten guztientzat. JON MIRANDA



KANTU JIRA BEREZIA

Asteasuko Usarrabi abesbatzak kantu jira saio berezia egin zuen larunbatean. Nafarroako hainbat herritako (Lizarra, Tafalla edota Burlata) kantu jiretako taldeak gonbidatu zituzten eta elkarrekin ari ziren kalez kale. Ondoren elkarrekin bazkaldu zuten guztiek. J. MIRANDA



TRIANGULOA, LORETAN

Kolorez eta lore usainez bete zen Tolosako Trianguloa plaza larunbatean, Lore eta Landareen Azoka egin baitzuten. Eguraldia lagun, herritar ugari gerturatu zen, ikustera, nahiz gustuko landare edota lorea erostera. Orotara, zazpi mintegi eta artisauek parte hartu zuten azokan, udaberri sasoiko lore eta landare mota nagusiak eskainiz. JOSU ARTUTXA



MENDE LAURDENA OSPATZEN

Anoetako Gaztetxeak 25 urte bete ditu eta gazte asanbladatik igaro diren belaunaldi ezberdinetako kideek ospakizuna egin zuten larunbatean. Sagardo dastaketa egin zuten eguerdian, eta ondoren, bazkarian 70 pertsona inguru elkartu ziren. Gauera arte luzatu zen jai giroa, bakarrikzetaekin, poteo musikatuarekin eta BaskBilitx DJrekin. JON MIRANDA

KIROL EMAITZAK

Areto futbola	
BIGARREN B MAILA	
30. jardunaldia	
Laskorain - Tauste	2-4
Alcorcon - Lauburu Ibarra	3-5
Sailkapena	
1. Tauste	68p
2. Otxartabe	62p
3. Tafa	59p
4. Lauburu Ibarra	56p
5. Pinseque	52p
6. Zierbena	51p
15. Laskorain	16p
16. Ribafrecha	14p
HIRUGARREN MAILA	
29. jardunaldia	
Donipari - Tolosala	2-8
Sailkapena	
1. Antiguoko	76p
2. Aurrera De Vitoria	60p
3. Mondrate	60p
4. Tolosala	59p
5. Gernikako	
Hurrengo jardunaldia	
Tolosala (4) - Eskoriatza (10)	
Eskubaloia	
1. LURRALDEKO MAILA	
Federazio Garaikurra.	
Sailkapena	
1. Tolosa CF Eskubaloia	24p
2. Munttarpe Kaialde	23p
3. Ordizia Biok2.com	16p
Hurrengo jardunaldia	
Egia Belea Taberna (6)	
Tolosa CF Eskubaloia (1)	
Futbola	
3. RFEF MAILA	
30. jardunaldia	
Tolosa CF	1
Berriozar	0
Sailkapena	
1. Eibar B	75p
2. Burgos	65p
3. Añorga	62p
4. Oiartzun	56p
5. Muller	52p
6. Arratia	49p
7. Osasuna	48p
8. Logroñes	45p
9. Parquesol	42p
10. Tolosa CF	41p
11. Bizkerre	39p
12. Salamanca	33p
13. San Ignacio	32p
14. Berriozar	28p
15. Mutilvera	13p
16. Monte	2p
ERREGIONAL OHOREZKO MAILA	
GIZONEZKOAK	
32. jardunaldia	
Tolosa CF	2
Ordizia	1
Sailkapena	
1. Eibar B	71p
2. Aretxabaleta	68p
3. Zarautz	66p
4. Bergara	59p
5. Tolosa CF	48p
6. Mutriku	46p
7. Elgoibar	45p
8. Zumaiako	45p
Hurrengo jardunaldia	
Beasain B (14)	
Tolosa CF (5)	
ERREGIONAL OHOREZKO MAILA	
EMAKUMEZKOAK	
28. jardunaldia	
Tolosa CF B	1
Intxaurdi	0
Sailkapena	
1. Mariño	74p
2. Antiguoko	73p
3. Goierri Gorri	59p
11. Tolosa CF B	30p
Hurrengo jardunaldia	
Hernani B (14)	
Tolosa CF B (11)	
GORENGO MAILA GIZONAK	
29. jardunaldia	
Billabona - Ilintxa	2-2
Zumaiako - Danena	3-1
Sailkapena	
1. Mondragon	71p
7. Danena	39p
12. Billabona	32p
Hurrengo jardunaldia	
Danena (7) - Billabona (12)	
GORENGO MAILA EMAKUMEAK	
Igoera fasea, 10. jardunaldia	
Aiztondo Neskide - Usurbil	
3-1	
1. ERREGIONALA, KOPA	
13. jardunaldia	
Intxurre	6
Euskalduna B	0
Mutriku B	0
Tolosa CF B	1
Saskibaloia	
EMAKUMEZKOEN 1. MAILA	
Finalerdia	
Eguzkitza Sagardotegia TAKE	44
Digitarte Hoops	42
GIZONEZKOEN 2. MAILA	
Finala	
Elorri - Aldapa	77
Hernani	61



Eguzkitza Sagardotegia TAKE saskibaloitaldeko jokalariai finalerako txartela ospatzen Usabalen. J. A. D.

Finalean da TAKE, asko sufritu ondoren

Digitarte Hoops taldeari 44-42 irabazi ondoren, larunbatean CD Internacional taldearen aurka jokatu dute tolosarrek, Beasainen

Josu Artutxa Dorronsoro
Tolosa

Senior emakumezkoen 1. mailako Eguzkitza Sagardotegia TAKE saskibaloitaldeak, ligako finala jokatu du igande honetan, maiatzaren 18an, Beasainen. Aurkaria CD Internacional taldea izango dute tolosarrek, finalerdian Digitarte Hoops taldeari 44-42 irabazi ondoren.

Larunbatean jokatu zuten TAKEkoek finalerdia, Usabal kiroldegian. Emozio handiko lehia izan zen Eguzkitza Sagardotegia TAKE eta Digitarte Hoops taldeen artekoa. Ligako finalera sailkatzeko txartela zegoen jokoan, eta faborito ziren tolosarrek; lehen postuan amaitu zuten ligako fase erregularra, donostiarrek, berriz, laugarren.

Lehen bi laurdenetan bazirudien partida erraza izango zela etxekoentzat. Markagailuan alde handiarekin heldu ziren atsedenaldira (32-19) eta sen-

tsazioak onak ziren. Hirugarren laurdenean, tentsioa eta urduritasuna nabaritzen hasi ziren jokalariai. Hamar minutu horietan izan zen saskiratze kopuru txikia da horren adibide: 6 puntu sartu zituen TAKEk, eta 9 Digitarte Hoops. Hala ere, 10 puntuko aldearekin iritsi ziren tolosarrek azken laurdenera: 38-28.

Orduan, ordea, asko sufritu zuten Mikel Lakunza entrenatzaileak eta bere jokalariek. Er-laxatuta kantxaratu ziren, eta donostiarrek orduan oraindik partida irabazteko aukerak zizutela sinesten zuten. Pixkana, hiruko bi saskiratzeri esker, markagailuan gerturatzea lortu zuten, eta etxekoak urduritzen hasi ziren. Jaurtiketa libreetan ez ziren guztiz fin aritu tolosarrek, baina ezta donostiarrek ere, eta horri esker lortu zuen TAKEk aldeari eustea. Azken jokaldian, aldiz, partida berdindu eta luzapena jokatze-ko aukera izan zuen Digitarte Hoops.

Azkenean, majo sufrituta, 44-42 irabazi zuen etxeko taldeak, eta larunbateko finalean izango da.

Zaletuen erantzuna azpimarratzekoa izan zen larunbatean. Hauek ere taldearekin sufritu zuten, baina azkenean, erakutsitako berotasunari esker, taldeak helburua lortu zuen.

FINALA, IGANDEAN

Finala, CD Internacional talde donostiarraren aurka jokatu du TAKEk, Beasaingo Antzizar kiroldegian. 18:00etan hasiko da partida. Fase erregularra bigarren tokian amaitu zuen CD Internacionalek, eta finalerdian erraz irabazi zion hirugarren sailkatu zen Goierri: 67-55. Tolosarren eta donostiarraren arteko fase erregularreko bi partidetan, garaipen bana lortu du talde bakoitzak. CD internacionalek 58-53 irabazi zion TAKEri etxean; tolosarrek, berriz, 54-44 irabazi zieten donostiari Usabalen, fase erregularreko azken partidari.

Buruz buruko finalean eskualdeko ordezkari bat egongo da

Iñaki Artolak eta Jokin Altunak igandean jokatu dute finalerdietako partida, Donostiako Atano III.a pilotalekuan



Iñaki Artola eta Jokin Altuna Tolosako Beotibar pilotalekuan, binakako txapelketako partidari. A. IMAZ

Asier Imaz

Ekainaren 2an jokatu da buruz buruko txapelketaren finala, Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Artola edo Altuna III.a bertan izango dira. Igande honetan jakingo da eskualdeko ordezkaria zein den.

Finalerdietarako txartela lortzen azkena Jokin Altuna izan da, herenegun, Dariori 22-19 irabazi ondoren. B multzoko bigarren postua lortu du amezketarrek final-laurdenetako ligaxkan. Finalerako bidean, beraz, A multzoko lehen sailkatua izango

du aurkari igandean, hau da, Iñaki Artola.

Darioren aurkako partida Eibarko Astelena pilotalekuan jokatu zuen Altuna III.ak. Tentsio handiko lehia izan zen, irabazleak aurrera egiten zuelako eta galtzailea etxera zihoalako. Amezketarra bikain hasi zen, 7-1 aurreratuz. Ondoren errioxarraren erreakzioa etorri zen baina Altuna III.ak aldeari eustea lortu zuen, 18-12 jarritz. Bigarren atsedendaldi luzearen ostean, Dariok bere ahala erakutsi zuen partida berdintzea lortuz. Zailena egina zuenean, errioxarrak ez zuen

22ra iristeko biderik aurkitu, eta Amezketako txapelkunak ez zuen barkatu.

Txapelketako partidarik gogorrena jokatu zuten Aspeko bi arrerariak. Altuna III.aren esanetan, aste hau atsedendaldi hartzeko erabiliko du, gorputza ehuneko ehunean prest edukitzeko iganderako. Iñaki Artola bi aste atsedendaldiaren ondoren iritsiko da finalerdia.

Beste finalerdia Lasok eta Zabalak jokatu dute larunbatean, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Lehia honetan nafarra izango da faborito garbia.

Amezketeta, Altzo eta Tolosa final zortzirenetan lehiatuko dira

Erredakzioa

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa final zortzirenetara iritsi da, eskuz nahiz gomazko paletaz. Eskualdeko hiru ordezkari bakoitza geratzen dira txapelketan: Altzo eta Amezketa eskuz, eta Tolosa gomazko paletan.

Bidean, eskuz, Amasa-Villabona, Tolosa eta Aduna geratu dira. Final hamaseirenetako kanporaketa ez zuten gaitzitu hauek.

Amasa-Villabonak Bergararen aurka sei partidak galdu zituen; hiru joanekoak eta hiru itzulera-koak. Aduna Azkoitiak utzi zuen txapelketatik kanpo, nahiz eta

jubenilen arteko bi lehiak eskualdekoek irabazi. Azkenik, Tolosa Beasainen aurka galdu zuen, kadeteetako partidak irabazita.

Final zortzirenetan, Altzo lehian sartuko da. Zaldibiaren aurka jokatu dute esku pilotan. Joaneko partidak Zaldibian izango dira ostiralean, 20:00etatik aurrera. Amezketaren aurka Bergara izango da eta hauek ere itzulerakoa etxean jokatu dute. Gomazko paletan, Tolosa taldeak Oiartzunen aurka jokatu du. Kasu honetan eskualdekoek joaneko partidak etxean jokatu dituzte eta itzulerakoak Oiartzunen.

John Cabang, Filipinetako txapeldun

Erredakzioa Irura

Atleta irurarra bere pausoak ematen ari da Parisko Olinpiar Jokoetara joateko. Filipinetako Atletismo Txapelketa izan da joaneko, eta 110 metro hesietan lehen postua lortu du irurarrak, txapeldun bilakatuz. Sekulako marka egin du Cabangek, 13,37 hain justu, Filipinetako errekor berria ezarritik eta baita Euskadiko ere.

Parisera joateko gutxieneko marka 13,27ko da, eta horraino ez da iritsi oraingoz Cabang. Baina 40 parte hartzaile izan daitezke proba horretan Olinpiar Jokotan, eta egungo sailkapenean 24. postuan kokatu da irurarra. Sailkapen hori ekainaren 30ean itxiko da eta aukera handiak ditu 40 postu horien artean egoteko. Filipinetako Txapelketan egin duen marka aurtengo munduko 13. azkarrena da.

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

hilberriak
eskertzak • urteurrenak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95
Asteleneanetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu



Juana Querejeta Etxeberria

(Juan Bautista Larrarteren alarguna)

- Goian Bego -

Ostiralean hil zen, 101 urte zituela.

Eskerrik asko izeba.
Larrarte-Otegi sendia.

BIDANIA, 2024ko maiatzaren 14an.



Valentina Ugartemendia Zubillaga

(Jose Miguel Tolosaren alarguna)

Maiatzaren 13an hil zen, 93 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -

Bere seme-alabak: Jexux eta Carmen Garro(t), Adrian, Edurne eta Joxe Imaz; biloba: Alaitz; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde, otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte, ASTEARTAN arratsaldeko SEIETAN, Hernialdeko ANDRE MARIAREN ZERURATZEA parrokiaren izango den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

HERNIALDE, 2024ko maiatzaren 14an.

Oharra: Gorputz beila Tolosako ORIA BEILATOKIAN egongo da, ASTELEHENA 11:00-13:30 / 15:30-20:00 eta ASTEARTEA 09:00-12:00ak bitartean.



ASTEARTEA, 2024KO MAIATZAK 14
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 14

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Energia, bizitzaren motorra. Zubimusuko ikasleek esku-orriak banatuko dituzte Villabonako kaleetan, 10:00etan hasita.
Anoeta. Sahara, lurralde okupatuak erakusketan Garazi Hach Embareken bisita gidatua, 19:00etan.
Asteasu. Bigarren saioa kultur etxe berriaren parte hartze prozesuan. Udaletxean, 19:00etan.
Berastegi. Oinez Berastegi plazatik abiatuta. Ondoren. Hamaitetakoa.
Tolosa. Los trastornos del sueño hitzaldia, Begoña Artolarekin. Topic-en, 10:00etan.
Tolosa. Furgobaratza Tolosako baratzetxe parkean, 18:00etan.
Tolosa. San Joan jaien inguruko bilera. Kultur etxean, 19:00etan.

Ikus-entzunezkoak

Amasa-Villabona. Arnasa betean dokumentala, Gurean, 19:30ean.
Irura. Bizkarsoro filma, udaletxeko ganbaran, 18:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.
10:00. Patxadaz.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
20:00. Eta zer ez da (ez)berdin.

28 KANALA

11:00. Urrutiajunbe.
13:30. Tolosaldea Gertutik.
17:00. Eugeniren txokoa.
20:30. The IX age fantasy battles.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Arrixku musika taldea.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi 6 behe, 1. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro nahasia izango da. Goizean hodei ugari izanagatik zeruan, giro ateri eta lasaia nagusituko da. Arratsaldean zehar ordea, egoera ezegonkorta egingo da eta zaparradak nagusituko dira, tarteka ekaitzak jotzea baztertu gabe. Ipar-mendebaldeko haize bizia nagusituko da. Tenperaturak nabarmen behera egingo du, 14-16 graduan joz goia.



Bihar. Antzeko giroa. Zeruan hodeiak nagusi izango dira egun osoan zehar, nahiz eta, tarteka ostarte batzuk ireki. Hodei hauek tarteka zaparrada batzuk utziko dituzte, puntualki mardulak izatea baztertu gabe, ekaitz eta guzti. Haizea iparraldetik ahalibilliko da. Tenperaturak antzeko jarraituko du, 14-16 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Mugikorra erabiltzeko adina atzeratzea xede

Ibarrako haurrek deiren bat egiteko beharra dutenean, komertzio, taberna edo eraikin publiko batera jo ahalko dute

Iñigo Terradillos Gaztañaga
Ibarra

Zugatik Gugatik Uzturpe ikastolako guraso elkarteak haurrei telefono mugikorra emateko adina atzeratu nahi du. Horretarako, herriaren eta herritarren inplikazioa beharrezkoa dela iritzita, ekimen berria abiarazi du. Gaztetxoek, beharra dutenean, komertzioetan, tabernetan nahiz eraikin publikoetan telefono mugikorra erabili ahalko dute. Leku horiek erraz identifikatzeko *Gurea erabili dezakezu* irakur daitekeen pegatinak jarri dituzte.

Guraso elkarteak 2022. urtean sortu zen, mobilen erabileraren inguruko hitzaldi baten ostean. «Kontzientzia piztu zitzaigun, eta taldea osatzeko erabakia hartu genuen», azaldu du Joseba Intxausti elkartearen kideak. Orduetik, hilero elkartzen dira Ibarra-ko kultur etxean, eta hainbat ekintza burutu dituzte. «Esaterako, galdetegiak luzatzen ditugu ikastolako gurasoen whatsapp taldeetan, eta haurrei mobila emateko adina atzeratzeko prest dauden galdetzen diegu».

Tolosako Altxa Burua guraso elkartearekin harremanetan daude, eta Gipuzkoa mailan ere hasiak dira mugitzen. «Zabaltzea, saretzea eta indarra hartzea da gure helburua, herritarren artean kontzientzia pizteko, eta



Zugatik Gugatik guraso elkartearen eta merkataritza elkartearen kideak. I.T.

horrela ekimena modu kolektiboan bultzatzeko. Izan ere, argi dago aldaketa etorriko bada, gurasoek banaka eginda ez dela etorriko, taldetik etorriko da».

Hain zuzen, Tolosako Altxa Burua guraso elkarteak iragan urteko irailean martxan jarri zuen *Geurea erabili dezakezu* kanpaina hartu dute eredu moduan, Ibarra ere ildo beretik jozteko. Herritarrei zer pentsatua eman nahi diete, eta haurrek badaezpada mugikorra uneoro alboan izatea ez dela beharrezkoa ulertarazi nahi dute: «Deiren bat egiteko beharra dutenean, dena, taberna edo eraikin publiko batean egin ahalko dutelako».

Bada, guraso elkartetik ekimena martxan jarri ahal izateko bat egin duten eragileen babesa eskertu dute. Horien artean da Iba-

rrako merkataritza elkarteak. Bertako kide Amaia Larrartek azaldu duenez, guraso elkartearekin batera bat egin zuten, eta merkataritza guztiak ekimenarekin ados azaldu ziren. Modu horretan, haurrek herrian zehar hamaika aukera izango dituzte, beharra suertatzen denean, telefono deia egiteko.

Elkartetik adierazi dute ez daudela teknologiaren aurka, horren erabilera desegokiaren aurka baizik: «Teknologia hemen dago eta ona da, baina erabilerak osasuntsua behar du izan». Izan ere mugikorraren erabilera goiztiarrak eta desegokiak eragin «kaltegarriak» dituela haurraren adierazi dute, buru osasuneko arazoak kasu, eta ikastolan bertan hasiak direla nabaritzen ohartarazi dute.



zozketa



Atarikideentzat
bi sarrera ditugu

Euskal Barrokensemble taldearen
El amor brujo
ikuskizuna

Maiatzak 17, ostirala, 20:00etan
Tolosako Leidor antzokian

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte 943 65 56 95 edo Ataria.eus

Fp CIPF FRAISORO ESKOLA LH II

2024 2025

Fraisoro eskola

Elbarrena Auzoa, 12 · ZIZURKIL · 943 692 162
fraisoro@fraisoroeskola.eus

GUKE ESKAINTZA Heziketa-zikloek 2.000 orduko iraupena dute, D hizkuntza ereduaren.

NEKAZARITZA

OINARRIZKO MAILA

• Nekazaritzako eta Abeltzaintzako jardueretako Oinarrizko Profesionala.

ERDI MAILA

• Lorezaintza eta Loregintza Teknikaria.
• Nekazaritza eta Abeltzaintza Ekoizpeneko Teknikaria.

GOI MAILA

• Basoa eta Natur Ingurunearen kudeaketarako Goi maila Teknikaria.

ELIKAGAIEN INDUSTRIA

ERDI MAILA

• Elikagaiak Eraldatzeko Teknikaria.



AURREMATRIKULAZIOA

Maiatzaren 6tik 24ra